

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure zerbitzua aurrera ateratzeko itunak izatea interesgarria iruditzen zaigu, azken finean bezero eremua zabaltzeaz gain baliabideak eskuratzeko, arriskuak murrizteko eta negozio-eredua optimizatzeko balio duelako. Azken finean harremanak izateak zerbitzua ezagutzera eramateko aukera gehiago ematen dituelako. Batez ere, alderdi hori ezinbestekoa ikusten dugu hasiera-hasieran, gure zerbitzuak etorkizun bat izateko. Horretarako gure zerbitzuak bi motatako hornitzaileak izango ditu.

Alde batetik, herriko udaletxearekin egingo dugu ituna. Izan ere, herri proiektu bat izanik, gure erabiltzaileentzat jasangarriagoa izateko diru laguntzak beharrezkoak dira. Horrez gain, herrian bertan ematen den zerbitzu bat izango denez, erroldatuta dagoen jendearentzat deskontuak egongo dira. Alderdi hori, udaletxearekin adostu beharreko kontuak dira.

Beste aldetik, herriko ikastetxeekin itunak egitea ere baliagarriak dira, horrela ikastetxe horretako haurrak eta familiek gure zerbitzuaren inguruko informazioa hurbileko era batean jasoko dute. Gainera, beraiekin egindako itunaren esker, beraiek informazioa eskainiko dute eta guk beraien ikastetxerako ekintza desberdinak antolatu ditzakegu hiruhilekoan behin. Horregatik esan dezakegu, itun hau baliabideak eskuratzeko baliagarria izan daitekeela.

Horretaz gain, gure zerbitzua sortuko dugun eragile bakoitzak proiektuarekiko konpromisoa hartzeaz gain, rola ezartzea garrantzitsua da. Gainera, bakoitzaren funtsezko baliabideak baliagarriak eta garrantzitsuak dira. Gure kasuan, Izaskunek eta Garazik lokalaren barne diseinua pentsatzeko gaitasunak izanik barne diseinurako baliagarriak izango dira. Jarrartzeko, Izaskun komunikatzeko arloan garrantzitsua izango da, Garazi ekintza desberdinak pentsatu eta jorrazteko orduan, Ane diseinu pertsonalizatuak sortzeko momentuan eta Maialen salmentarako orduan.